


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**ZUBIETA 1E**

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1906

Deskribapena

Mehelin arteko etxea. Erdisotoa, bastardea eta bost goi oin ditu, azkena atzeraemana. Erdiko eskailera eta maila bakoitzeko bi etxebizitza dauzka. Konposizioari eta eraikuntzari dagokienez, kalitatezko eraikina da. Fatxada sendoa du, materialei eta horien apaindurari dagokienean (atarira eta eskailerara hedatzen da). Lehen bi solairuen antolamendua nahiko ezohikoa da. Horiek batera tratatuta daude, eraikinaren oinarritzat, eta hiriko fatxadetako ohiko soluzioetakoa baino altuera handiagoaz. Dobelek, eta marmolaren eta hareharriaren arteko txandakatzeak bereizi egiten dute zati hori gainerakotik. Era berean, baoen ugaritasunagatik eta dimentsioagatik nabarmentzen da (ohiko motibo modernistekin errematatuta daude). Goialdeak aurrealde sendoa du. Harlandu kuxinduradunaz eraikita dago baoen azpaduren artean. Baoak bertikalki lotuta daude bloke bateratu gisa, dagozkien balkoiekin. Fatxadaren ertzak harlanduzko begiratoriki sendoez errematatuta daude, kareletan bestelako soluzioez, Art Nouveau-ren konposizio jokoaren barruan.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berriazko erregimena.

A.- Babestu gabeko fatxada elementuak: ez.

B.- Fatxadaren elementu iraunkorrak: harlandua eta harlangaitz horma; dekorazio entokatuak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.